

MEMORIA

20
18

PRODUKZIO
UNITATEA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura

2

2018an, Donostia Kulturako Produzizio Unitateak **701 ekoizpen** baino gehiago egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean,

San Telmo Museoa, Kursaal zentroan eta beste gune batzuetan egindakoak batuta.

Ekoizpenotan sartzen dira Antzerki FERIA, Giza Eskubideen Zinemaldia, Olatu Talka jaialdia, Jazzaldia eta Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, bai eta Zinemaldiarekin eta beste erakunde batzuekin izandako beste lankidetzak batzuk ere, zeinen artean honako hauek nabarmenduko baititugu:

- Lagun liburu-dendari egindako omenaldia
- I-COM kongresua

- DIPC jardunaldiak
- Basque Culinary Center-eko Galako Afaria

Donostia Kulturaren produkzio horiez gainera, 2018an beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini genizkien gure ekoizpen-zerbitzuak.

KURSAAL ESZENAren kontzertuak (musika klasikoa eta herri-musikak).

Musika Hamabostaldiaren kontzertuak Kursaal Jauregian, Victoria Eugenia Antzokian, San Telmo Museoa, bai eta beste gune batzuetan ere.

Produzizio Koordinazioa, **SSIFF Donostia Zinemaldia**rekin batera, Victoria Eugenia Antzokian.

Gabonetako Kontzertua (**EI DIARIO VASCO**).

Donostiaren Urrezko Domina Eusko Ikaskuntzari emateko ekitaldia, **DONOSTIAKO UDALAK** antolatua.

Ponentzia batzuk aurkeztu ziren "Formatu handiko kultur ekitaldien antolakuntza"ri buruzko mintegi batean, Kroaziako Rijeka hirian, **RIJEKA 2020** Europako Kultur Hiriburutzarako programaren barruan.


Azkenik, nabarmentzekoa 2018an desgaitasun intelektuala duen kide bat sartu dela antolakuntza-egituran, **PAUSO BERRIAK** programari esker, zeina Atzegik eta Gureak erakundeek sustatzen baitute.



Olana Liss



Beldurrezko Astea - Kartela



Olatu Talka - Inaugurazioa